

GUNADHYA

JOXE AZURMENDI

(Joseba Sarrionaindiari
eta Euskal Herriko beste gunadhya guztiei)

Irakurri nian inperatore txinoaren hire ipuina. Nik beste ipuin bat esango diat, gure gartzela haundi honetatik zuengartzela txikira. Egiatzko ipuin bat, egiaz gertatua Indian, gero askatasun gose ziren herri guztietan berriro gertatu baino askoz lehenago.

Antzina-antzina batetan, Siva jainkoa eserita zegoan eguzkitan bere emazte Mendiaren Alabarekin Himalaietako Kailasa gailurrean. Elurretako epelean, amodiozko birloraldi batek bihotza jo zioan bat-batean Sivari udaberrian, eta burua ilargiz koroatuta daukan jainkoak emaztea bere altzoan hartu, eta galdetu zioan laztanduz: «zer egin niezaizuke, poz bat emateko?» Eta jainkosak, Mendiaren Alabak, ipuin polit bat eskatu zioan. Baina kontatu zioan eta ez zitzaioan gustatu. Sivak, ilargia daukanak buruan, beste ipuin bat agindu zioan orduan, kontsolatzeko, ipuin miresgarri bat, inork oraindik entzun ez duen halako miresgarria. Jainkosak berehala Sivaren zezenari eman zioan ordena, ez uzteko inori sartzan. Eta Sivaren zezenak atea zaintzen zizkian eta ez zioan inori sartzan uzten. Eta hasi huen jainko Siva, koroatuta dagoena ilargiaz, Aireko Izpirituen zazpi legendak emazteari kontatzen, Mendiaren Alabari.

«Tan, tan», jo zian atea Lili-Bixarrek, Sivaren pamerial kuttunenak. «Agudo, gero! Joan beharrean nago agudo Sivagana,



ilargiak burua koroatzen dionagana!» Baina zezenak ez zioan utzi. Lili-Bixar ikustezin bihurtu huen orduan eta ikusi egin nahi zian, ea zergatik ez zeukan sartzetik. Eta sartu, eta dena entzun zian.

Gabean, sutondoan, hara egin eta hona egin, Lili-Bixar ezin geldi egon huen, emazteari dena esan gabe. «Zer daukazu, ain urduri egoteko?», galdetu zioan emazteak. Eta Lili-Bixarrek dena kontatu zioan.

Tuntun hutsa huen Lili-Bixarren emaztea. Behin, lainerezietan, kontuak kontatzen hasi

huen lagunei jainkosaren aurrean, eta lagunak txunditzeagatik, Aireko Izpirituen zazpi legendak hasi huen kontatzen. Mendiaren Alaba su batetan joan huen senarrarengana. Eta ilargiak buruan koroa egiten dion Siva jainkoak, desterratu egin behar izan zian mundura Lili-Bixar, pamerial kuttunena, bere emaztearekin.


Gunadhyak horrela jakin zian munduan, nola gizonak, jakintza erredemitzaile sekretua ikasiz gero, Vidyadhara bihurtuko lirakeen, aireko Izpirituak.

Beti ere espaz zebilean eta, jakin zuenean gero Mendiaren Alabak, haserretu huen biziki eta konjurio batekin iratxo bihurtu zian Gunadhya, bertuteetan aberatsa, eta dena gizon guztiei adierazi beharra zeukean, konjurioa hausteko eta berriro gizon izateko. Baina nola esan guztiei? Gizonak oraindik ez zekitean idazten eta irakurtzen, eta Gunadhya ezin joan zitekean herriz-herri mundu guztian, Aireko Izpirituen zazpi legendak denei kontatzen eta beren penetatik nola askatu gizonen irakasten.

Gunadhyak, lehenengo, idazketa asmatu zian orduan. Eta orduan ikasi ziaten gizonak esan nahi dutena paper batetan esaten. Gero Gunadhyak Aireko Izpirituen zazpi legendak idatzi nahi zizkian, baina ezin zian, Mendiaren Alabak bidalitako izpirituek segituan harrapatzen zizkiotean eta paperak eskuartetik. Gunadhyak, ordea, derrigor gizon bihurtu nahi zian berriro, eta Aireko Izpirituen historia esan beharra zeukean denei, konjurioa hausteko eta gizon izateko.

Gunadhya basamortura joan huen, zuhaitzak zeruraino gora diren urrungo baso haundi batetara, herri guztietatik aparte, eta bakar-bakarrik bizi huen basoan. Baina basoan ez zeukean tintarik. Eta, orduan, ezkerreko besamanga jaso, ebaki zain bat, eta bere odolarekin idatzi zian, nola gizonak, beren penetatik askatzen dituen jakintza ikasiz gero, Vidyadhara bihurtzen diren, Aireko Izpirituak, zazpirehun mila bertso zazpi aldiz. Eta deitu bi ikasleri, eta Pratishtanako Erregearengana bidali zizkian poemarekin. Guztiz Errege jakintsua huraxe, eta mundu guztian haun-

dia huen haren sona, denek bat zekitean, nola txiki-txikitatik beti legeen ikasketara dedikatu zen.



Pratishtanako Erregeak, sudurra zimurtuz, odolarekin idatzita zegoela eta, iratxoek hizkuntza inkultuan zegoela eta, gaia ere txiroak nola penetatik askatu zuela eta, higuin eman zioan harek denak, eta ez zian bere eskuekin ukitu ere egin nahi izan. Bi ikasleak etorri ziren bidetik itzuli hituen Gunadhyagana bihotzak penaz beterik.

Gunadhya, bertuteetan aberatsa, isildu egin huen. Eta meditazioa egiten geratu huen bakar-bakarrik zuhaitz altu artean, eguzki batzuk eta ilargi batzuk. Eta jaiki huen gero, eta joan huen gailur zuri batetara, eta eguzkiaren epelean zeruko txoriei eta basoko piztiei abestu ziean Aireko Izpirituen historia, jainkoek sekretuan gordea zeruan eta Pratishtanako Errege legetan jakintsuak destinatua, orriz-orri, zazpirehun mila bertso zazpi aldiz, eta lau airetan barreiatu zizkian gero paperak.

Harrez gero mundu guztian zerabiltzak haizeak odolaz idatzitako askatasunaren orriak. Eta Gunadhyaren orriak biltzen zebilek, mendiz-mendi, kalez-kale, euskaldun gudaria.

Erantzuidak, adiskidea:
eskutizketa berri bat sortuko
diagu
zuen gartzela txikitik gure
haundira.

